

## Inmigranteak eta bertako jendea bilduko dituen taldea sortu da eta gaur bilduko dira

■ Arratsaldeko 17:00etan izango da bilera Biterin ■ Gaurko bileran zehaztu nahi dituzte elkarte horren helburuak eta funtzionamendua ■ Hernanin kanpoko 300 pertsona inguru egon litezkeela kalkulatu da.

INMIGRANTEAK eta bertako jendea bildu nahi dituen taldea osatzeko bilerak eginen hasi ziren pasa den udaberrietik. Gaiaren inguruko azkeneko bilera urriaren 11n izan zen Santa Barbara Elkartearen. Han baiezkoa eman zitzaion taldea sortzeari eta taldea martxan jartzeko aurreneko urratsak ematea erabaki zen. Gaur izango du jarraipena ekimen horrek, arratsaldeko 17:00etan Biterin bilduko dira eta bilera horretan erabaki nahi dute alde batetik, zeintzuk izango diren taldearen helburuak eta bestetik, taldea nola osatuta egongo den.

Orain arte 20 bat pertsona bildu dira bileretan eta bultzatzaileek dei egin diete bertakoei nahiz inmigranteei bilerara agertzeko.

### Aurreneko pausoak

Urriaren 11ko bileraren ondoren banatu ziren elkarte bat sortzeko beharrezkoak diren urratsak azaltzen dituzten orriak eta horiek eskutan dituztela gaur erabakiko dute taldearen antolamendua. Taldearen helburuak ere gaurko bileraren gai ordean dago. Orain arte taldearen inguruan aritutako pertsonen ahotan izan dituzten asmoak izan dira: inmigranteen oinarrizko beharrei erantzuten laguntzeko taldea izatea, lurralde eta kultura ezberdinetako jendeak elkar



Urriaren 11an egin zen inmigrante eta bertakoen bilera Santa Barbara Elkartearen.

### TALDEKO KIDEAK HIZKETAN

"Taldea sortzea gustatuko litzaidake, batez ere inmigrante askok jasaten duten marjinazioa eta egoera txarrari aurre egiteko. Guk hala ere suete asko izan dugu eta oso ondo moldatu gera hemen Hernanin" **Ghislaine Proaño (Ekuador)**

"Alde batetik beraien eskubideak defenditzeko talde bat izatea nahi nuke, eguneroko bizitzan beharrezkoak dituzten gauzak izan ditzaten. Bestetik beharrezkoa ikusten dut sozialki beste mentalitate bat zabaltzea gure artean, hainbat balore eta ikuspuntu lantzea" **Orten Baños (Hernani)**

"Taldea osatzea ondo iruditzen zait. Nik baditut nere paperak, lana eta etxea baina jendeak arazo asko ditu oraindik. Hala ere, bilera hauek ez ditut batere argi ikusten, bakoitzak era batera ikusten baitu" **Fatima Errimaili (Marruecos)**

ezagutzeko taldea izatea, eta abar.

### Banitz taldearen estudioa

Talde honetaz gain inmigrante eta bertakoen inguruko ikerketa bat eginen ari da Banitz elkartearen. Pasa den legealdian Banitz elkarteak, kultur aniztasunerako elkarteak, diru laguntza baten bitartez ikerketa bat jarri zuen martxan. Estudio horretan azaldu nahi da: inmigranteak bizitzaren berriari aurre egiteko dituzten oztopoak, bai inmigranteek eta bai bertakoei bata bestearekin duten tratua, eta abar. □



Etxeberria eta Pagola, besarkatzen.

## Joxan Pagola eta Gabino Etxeberriari omenaldia gaur

JOXAN Pagola Beltzak eta Gabino Etxeberriari omenaldia jasoko dute gaur, 20:00etan Tilosetan. Pagola joan den ostiralean utzi zuten libre, 19 urte kartzelan pasata. Etxeberria, berriz, abuztuaren askatu zuten, 7 urte preso egonda. □

## Ereñotzun, Partxis lehiaketa gaur eta antzerkia bihar

ASTEBURUKO ekitaldiekin bukatuko da Kultur Astea Ereñotzun. Gaur larunbata, 19:00tan partxis lehiaketa izango da. Igandean 20:30etan Gorringo taldearen *Kutsidazu Bidea Ixabel* antzezlan arrakastatsua ikusteko aukera izango dute sarrera lortu zutenek. Izan ere pasa den aste-bukararako sarrerak bukatu baitziren. Antzerkia San Antonio Parrokian izango da eta 350 lagun izango dira ikusten. □

### ZINEA BITERIN

#### Bi pelikula gaur

*DORAEMON el Imperio Maya*, 17:00etan eta *La liga de los hombres extraordinarios*, 19:30etan eta 22:30etan. □

### ■ SASKIBALOA

#### Hernani - Beasain, gaur, kiroldegian

HERNANIKO saskibaloia taldeak ligako partidua du gaur. Hernanik Beasaingo BKL taldearen kontra du, 16:30etan. □

### ■ BOLEIBOLA

#### Rekalde - Hernani, Bilbon

MUTILEN boleibol ekipoa garaipen berri baten bila joango da Bilbora, Rekalderen kontra. Partidua, 17:00etan da. □

**Antziola-Motor**  
Salmenta eta taller zerbitzua

**Ford Mondeo**

3 aukera ezberdin, gusto ezberdinentzat:

- 4 ateko elegantzia
- 5 ateko deportiboa
- Wagon familiarra

**Etorri, ikusi eta aukeratu.**

Antziola auzoa 12 - Hernani - Tel.: 943 55 57 72  
Ordutegia: asteazken zehar 9-13 eta 16-20 - Larunbatean 10-13

**OIALUME BILTOKIA**

Igande eta jaiegunetan dantzaldia, 19,30etatik

**Bihar Igandea, dantzaldia. ZATOZ!**

OIALUME BILTOKIA

Oialume auzoa  
943 55 29 38

**Telemar ANTENAK**

TB ANTENA PARABOLIKOEN INSTALAZIOA  
INDIBIDUALAK ETA KOLEKTIBOAK  
TELEDISTRIBUZIOA  
KONTSERBAZIOA eta MANTENIMENTUA

**Telefonia fijo eta mugikorra**

**Telefónica Movistar**

**Telemar - Itxastele**  
Elkano 13 - Tel.: 943 55 33 99  
Nagusia 7 - Tel.: 943 33 26 00

## WATERPOLOA

### Hernanik gaur hasiko du liga, Iruñan

■ Mutilen A taldeak Iruñaren kontra jokatuko du eta B taldeak Tximistarriren kontra, Anoetan ■ Emakume taldea aurrerago hasiko da.

HERNANIKO waterpolo taldeek ilusio haundiarekin hasiko dute denboraldi berria. Aurten ere Hernanik hiru talde izango ditu, 2 mutilena eta 1 neskena. Mutilek gaur dute aurreneko partidua eta biok kanpoan jokatuko dute: A taldeak Euskal Ligako partidua jokatuko du Iruñaren kontra, 11:00etan. Hernani B-k Gipuzkoako Ligako partidua jokatuko du Anoetan, Tximistarriren kontra, 20:30etan.

Nesken taldea aurrerago sartuko da konpetizioan, eta taldeak adierazi duenez "gogotsu daude entrenamenduen emaitzak ikusteko". □



Hernani B taldeak Donostian jokatuko du gaur.

### Euskal Herrian Euskarazek ezabaketa eguna deitu du gaurko

■ Gaur 11:00etan kalejira, plazatik ■ 19:00etan eskualdeko manifestazioa, plazan.

EZABAKETA eguna antolatzen du urtero Euskal Herrian Euskarazek eta aurtengoan gaurko egunarekin izango da. Euskal Herrian Euskarazek adierazi duenez euskaraz izandako azkeneko eraso salatu

nahi dute gaurko egunerakin: "urtero antolatzen den Ezabaketa Egun honi ezaugarritze berri bat eman nahi izan diogu. Azken erasoaldi hau salatu eta gure hizkuntza eskubideen aldarrikapena bateratuz". Eza-

baketa Egunerako atxikimendua eman dute Hernanin: AEKK, Molotoff Irratiak, LABek, Askapenak, Muttuk, AHTaren aurkako asanbladak, Iraulio Panttalonek eta Bai Euskarari Akordioak. □



MUSIKA KONTZERTUA JUBILATUETAN. Irungo Musika Kontserbatorioko Akordeoi Orkestak eta Larreaundi koru-

ak kontzertu ederra eman zuten ostegunean Jubilatuetan. Entzuleek ondo erantzun zuten eta giro polita izan

zen. Bukaeran, Jubilatuetan Etxeak musiko eta abeslari irundarrei lore sorta eman zieten eskerronez. □

## HITZ BITAN

### ANTZERKIA ASTIGARRAGAN

'Hitzak Patriketan' antzezlanaren igandean. Umeentzako antzerkia dago bihar Astigarragan. Hernanin izan berri den *Hitzak Patriketan* obra emango du Hankatxo taldeak. Aizpea Goenaga eta Iñaki Beraetxe dira aktoreak eta bidaiari irudikatuko dute. Antzerkia 17:30etan, kultur etxean.

### JUBILATUEN ETXEA

Goizeko paseoa. Jubilatuen Etxeak goiz pasa antolatu du eta zita goizeko 10:00etan izango da Goiz Eguzkin. Goizpasa nondik nora egin eguraldiaren arabera erabakiko dute.

### OSIÑAGAKO AUZO ELKARTEA

Ume jolasak gaur eta auzokoen bilera bihar. Osiñagako auzo elkarteak haur jaia antolatu du gaurko eta arratsaldeko 16:00etan Arriatsun egin dute zita animatzen den guztientzat. Bestalde bihar Osiñaga Auzo Elkarteak bilerarako deia egin du eguerdiko 12:00etan Arriatsun.

### OZENKI ABESBATZA

Kontzertua Azpeitan. Ozenki abesbatzak kontzertua eskainiko du bihar, igandea, 19:00tan Azpeitian. Imanol Kamio zuzendari duela Ozenki abesbatzak errepertorio zabala eskainiko du: Agurra, Carlos Gardenen *El dia que me quieras*, Mozarten *Ave Verum*, eta abar abestuko dituzte. Urte garai honetan Azpeitian antolatzen dute *Udazkenean Abesbatzak* abesbatza jaialdia eta Ereñotzuko Ozenki abesbatza gonbidatu dute. □



**BIGARREN URTEURRENA**  
**MARTINA ZERAIN MINER**  
2001eko urriaren 24an hil zen.



**HIRUGARREN URTEURRENA**  
**RITA ZERAIN MINER**  
2000ko urriaren 27an hil zen.

Senitartekoei oroigarri meza eskaini nahi diegu, eta lagun eta inguruko guztioi bertara etorri zaitezten gonbidatzen zaiteztegu.

Oroigarri meza, bihar, urriak 26, goizeko 10:30etan, Ereñotzuko San Antonio parrokiari.

**I. URTEBETETZEA**  
**Rosa Arrozpide Galardi**  
2002ko urriaren 17an hil zen

Rosaren senitartekoei, ezagutu zenuten guztioi gonbidapena luzatzen dizuegu, bere heriotzaren lehenengo urteurrenean eskainiko diogun mezara etor zaitezten.

Urtebetetze meza urriak 26, igandea, goizeko 11:00etan, Hernaniko San Joan bataiatzailearen parrokiari.

Hernanin, 2003ko urriaren 25ean.

**ZERBITZUAK**

<p>☎ TELEFONOAK</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▶ Taxiak: 943 550093</li> <li>▶ Udaltzaingoa: 943 333288</li> <li>▶ DYA: 943 464622</li> <li>▶ Autobusak: 943 556662</li> <li>▶ Anbulatorioa: 943 006666</li> <li>▶ Jokalari anonimoak: 943 331103</li> </ul>	<p>✚ FARMAZIAK</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▶ Egunez: Bilbao-Sagastiberri Urbieta 7 ☎ 943 552941</li> <li>▶ Gaeuz: Arzallus Andoain. Plazaola 17, pol 25 ☎ 943 591514</li> </ul>
--	--

**IRAGARKI MERKEAK**

Emakume bat behar da etxeko lanak egin eta umea zaintzeko, goiz eta arratsalde: 07:30etatik 11:00etara eta 16:30etatik 19:00etara : 658 73 88 32 (iluntzean)

Emakume bat behar dugu etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Interesatuak deitu: 943 55 27 79

KIROLA				ASTEBURUKO PARTIDUAK			
FUTBOLA	Taldeak	Non	Noiz	PELOTA			
Goren.	Hernani-Zestoa	Zubipe	Bihar 17:00	Erremontea - Galarretako Jaialdia			
Emakum.	Atsedernaldia			1) Larrea-Lander/Uterga-Urrutia	Galarreta	Gaur 16:00	
Gaz. Eusk	Union Txiki-Hernani	Fanderia	Gaur 17:30	2) Zeberio-Eizagirre / Altuna I-Lizaso	Galarreta	Gaur 16:00	
Gaz. 1	Hernani-Beasain	Zubipe	Gaur 16:30	3) Elizalde-Iriarte/Bereziartua-Aizpurua	Galarreta	Gaur 16:00	
Kad. Oh.	Aldapetarrak-Hernani	Matigoxot	Bihar 10:30	4) Matxin III-Auzmendi-Iribarren-J. Etxeberria	Galarreta	Gaur 16:00	
Kad. 1	Ondarroa-Hernani	Zaldupe	Bihar 11:00	Gipuzkoako Txapelketa			
Haur Oh.	Hernani-Aretxabaleta	Zubipe	Gaur 12:15	Kadeteak	Ezeiza II-Hernani/Andazpe	Kiroldegia	Gaur 16:30
Haur 1	Hernani-Martutene	Zubipe	Gaur 10:30	Kadeteak	Zabala-Grajai/Añorga	Kiroldegia	Gaur 16:30
BOLIBOLA				Jubenilak	Arrieta-Urkieta/Añorga	Kiroldegia	Gaur 16:30
Neska	Hernani-Deustu	Kiroldegia	Bihar 11:00	Jubenilak	Gerra-Lucas/Arruarte-Burutaran	Kiroldegia	Bihar 10:30
Mutilak	Rekalde-Hernani	Aranalde	Gaur 17:00	Jubenilak	Ezeiza I/Zazpiterri	Kiroldegia	Bihar 10:30
ERRUGBIA				Nagusiak	Manzisor-Martinez/Real a	Kiroldegia	Bihar 10:30
Liga Nazio.	Hernani-Irun	Landare	Gaur 16:00	Kronika Txapelketa			
Euskal Liga	Hernani-La Unica	Landare	Bihar 11:00	Jubenilak	Etxabe-Gurrutxaga/Legarreta-Ezeiza	Tilosetan	Gaur 16:00
Kadeteak	Hernani-La Unica	Landare	Bihar 12:00	Nagusiak	Gartzia-Kijera/Urabay-Villar	Tilosetan	Gaur 17:00
WATERPOLOA				SASKIBALOA			
Gipuz. Liga	Tximistarr-Hernani	Kiroldegia	Gaur 20:30	Liga	Hernani-Beasain	Kiroldegia	Gaur 16:30
Euskal Liga	Iruña-Hernani	Aranalde	Gaur 11:00				



**GALARRETA JAIALDI**

Ostegun, larunbat eta igandetan jaialdiak

**GAUR 16:00ETATIK AURRERA**

**ERREMONTA JAIALDIA:**

- partidua: Larrea - Lander / Uterga - Urrutia
- partidua: Zeberio II - Eizagirre / Altuna I - Lizaso
- partidua: Elizalde - Iriarte / Bereziartua - Aizpurua
- partidua: Matxin III-Auzmendi / Iribarren-J. Etxeberria